



BARREN

TOKIKOM

Musukoak, komunikaziorako traba

Ibai Etxabe eta Olatz Urkia





Euskaraldiari ekiteko hilabete eskas falta denean
Elgoibarren, orain arte, 558 lagunek eman dute izena



412k Ahobizi rola aukeratu dute
146 Belarriprest izango dira

379 emakumezkoak dira
177 gizonezkoak
2 ez-binarioak



16-30 urte artekoak 111 dira
30-50 urte artekoak 273
50 urtetik gorakoak 174

EUSKARALDIA: gure hizkuntza-ohituretan eragiteko ariketa soziala

Izena emateko:
euskaraldia.eus
elgoibar@euskaraldia.eus
943 741 626

"Iruditzen zait Belarriprest txaparekin jendea gehiago animatuko dela niri euskaraz egitera".

- Maite Unzueta -

Maite Unzueta *Ahobizi*



"Euskarari bultzada ematearen alde nago, eta horregatik erabaki nuen Euskaraldian izena ematea. Euskaraldiko hamai-kakoan parte hartzeko aukera ere eman zidaten, eta hasieran zalantzan egon banintzen ere, etxekeok animatuta, baiezkoa eman nuen. Ni izan nintzen azken letra, eta polita izan zen.

Ahobizi aukeratu nuen orduan, baina, orain, agian *Belarriprest* izatea aukeratuko dut. Iruditzen zait *Belarriprest* txaparekin jendea gehiago animatuko dela niri euskaraz egitera. Dena dela, *Ahobizi* izateak lagundu zidan euskaraz gehiago egiten, tarteka badaukat-eta gaztelaniarako joera".

Aintzane Gonzalez *Ahobizi*



"Proposamen oso polita iruditu zitzaidan jendeak kontzienteki euskaraz hitz egiteko, eta parte hartzea erabaki nuen. Niretzat oso baliagarria izan zen benetan jakiteko zenbat erabiltzen nuen euskara nire bizitzan. Nik ez daukat arazorik euskaraz hitz egiteko, baina gaztelaniara sarri jotzen dut, lanean edo

amarekin eta baita nire bikotea zenarekin ere. *Ahobizi* izateak lagundu zidan konturatzeko askotan ez dela izaten euskara nire lehenengo aukera. Joera hori aldatzeko ahalegina egin nuen Euskaraldian, eta txapaku ostean ere saiatu naiz ohitura horri eusten. Nik uste zerbait geratu dela".


Ion Zubiaurre *Belarriprest*



"Euskararen aldeko ekitaldi guztiak oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit, eta horregatik erabaki nuen Euskaraldian parte hartzea. Gure partetik ahal dugun laguntza guztia eman behar dugula iruditzen zait. Euskalduna naiz, eta euskaraz egiteko ez daukat arazorik, baina *Belarriprest* izatea erabaki nuen, modu horre-

tan nigana etortzen zenari ematen niolako niri euskaraz egiteko aukera. Ni saiatu nintzen ahal nuen guztia euskaraz egiten, baina nire lanean asko egiten dugu gaztelaniaz eta banekien *Ahobizi* izateak eskatzen zuen konpromisoa ezingo nuela bete. Aurten, akaso, animatuko naiz *Ahobizi* izatera, rol hori ere probatzeko".

Mikel Iñiguez *Belarriprest*



"Kuadrillan denok euskaldunak gara, denok Ikastolan ikasi dugu eta denok dakigu ondo euskaraz, baina hala ere, gaztelaniaz hitz egiteko joera daukagu eta horregatik aukeratu nuen *Belarriprest* izatea. Ez da ohitura ona, baina oso zaila egiten zaigu hori aldatzea. Euskaraldiak iraun zuen egunetan saiatu ginen euskaraz

gehiago egiten, baina gero lehengora itzuli ginen. Kallean gaztelania asko entzuten da, eta erraza da inertzia horretan jaustea. Guri euskara ez zaigu ahaztu umetan ikasi genuelako, baina erraztasuna bai galtzen da. Eki-men hauek ondo daude euskara bultzatzeko, eta aurten beharbada *Ahobizi* izatea aukeratuko dut".





EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa

Erruduntasuna eta bere funtzioak

// Positibo" izateak dimentsio berri bat hartu duen garai honetan zer pentsatua ematen dii gertuko kontaktu izateak suposatzen duenak: gure erlazio orok arrisku izaera hartu du, eta norbaiten zirkuluan gaudelako deitzen digutenean loturak izatearen ohorea baino bestearekiko amorru puntu bat pizten den sentazioa daukat.

Koronabirusa pandemia global bat dela esan genezake, planetako arraza

eta herrialde guztiak bateratu gaituena pairatzaile gisa. Klima aldaketaren gaiarekin parekatuko nuke nik: gure esku dago ahalegin kolektibo bat egiten badugu prozesua atzeratzea, gure ingurune hurbilean behintzat, ahalik eta ondorio arinenak izan ditzan, baina fenomeno bera ez dago gure esku eta dimentsio hau kontuan izatea garrantzitsua da. Klima aldaketan planeta beraren prozesua eta gure eskuetatik erabat at dauden faktoreak ere badaude.

Elkarrekin pairatzen dugu eta elkartasunak soilik lagunduko digu ahalik eta modu duinenean aurrera egiten. Norbanakooi arduraz jokatzera dei egiten digutenean inork jasan beharko ez lukeen pisua bizkarreratzen digute, eta erronka

besterik gabe onartzen badugu, laster sentituko dugu ezinaren ziztada.

Taldearen indarpean norbaiti kaltea eginez gero, erruduntasunak laguntzen digu geure ardura hartu eta egindako kaltea konpentsatzen. Baina geurea ez den ardura bat geure gain hartuz gero, kutsatzen garenean errudun sentituko gara gure inguruko egunerokotasunean sortu dugun (hortxe nahasmena) eraginagatik, eta honek inoiz baino bakanago eta zaurgarriago sentiaraziko gaitu geure auto-aislatze horretan.

Kontuz erruduntasun klase honekin, sintomak eta luzera begirako ondorioak sakondu ditzake-eta. Elkartasunak sendatzen gaitu. Mesfidantza eta erruduntasuna, berriz, toxikoak dira eta astindu egin behar ditugu egoera honi aurre egiteko.

"Elkartasunak sendatzen gaitu. Mesfidantza eta erruduntasuna, berriz, toxikoak dira eta astindu egin behar ditugu egoera honi aurre egiteko"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzarreko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Bere hautetsien eta alderdiaren kontra esan dituzten "irainak eta deskalifikazioak" salatu ditu EAJk

Gezurren, deskalifikazioen eta irainen" ordez "lana, kritikak eta iritzi arrazoituak eta objetiboak" emateko eskatu diete Elgoibarko EAJ alderdiko agintariek gainerako udal taldeetako. Elgoibarko EAJko buru Alfredo Etxeberriak eta Ane Beitia alkateak eman zituzten azalpenak martitzenean, Bartzokian. Bi gertakari aipatu zituzten prentsaurrekoa emateko motiboetan: batetik, Jorge Hernando EH Bilduko zinegotziak Facebookeko *Elgoibar Opina* orrialdean zabalduko idatzia. "Gezurrez, desinformazioz, irainez, deskalifikazioz, akusazioz eta manipulazioz betetako idazkia da, objetibotasunik, kontrasterik eta informazioa bilatzeko ahaleginik txikiena egin gabe idatzitakoa. Gaur egun, kanpora begira, bere kargua horrela betetzeko modua izaten jarraitzen badu, ez gaitzatezela bilatu, ez gaituzte eta aurkituko idazkia zuzendu arte", esan zuen Alfredo Etxeberriak. Horren harira, Elgoibarko EH Bilduk zer pentsatzen duen ere jakin nahi dute jeltzaleek. Bestetik, Ahal Dugu Podemos Elgoibarrek etxez etxe banatu duen argitalpen batean esandakoak aipatu zituzten. Argitalpen horretan "deskalifikazio pertsonalak" egitea eta EAJko Elgoibarko hautetsiei eta alderdiari berari "oinarririk gabeko prebarikazio akusazioak" egitea aurpegiratu diote Ahal Dugu Podemosi, eta kargu hartu diote EAJk bere onurarako gobernatzen duela esateagatik. Horiek "asmo txarrez" eta "modu interesatuan" egin dituztela uste du Etxeberriak.

Zabaldu duten komunikatuan nabarmendu dutenez, Covid gaitzaz gainera, bada politikan beste gaixotasun bat: "Ahozko inkontinentzia baliabide gisa erabiltzea". Eta esan zuten ez dardela prest Elgoibarren hori baimentzeko.

EH Bilduren erantzuna

Biharamunean ailegatu zen EH Bilduren erantzuna. "EAJk oposizioaren aurka" egindako prentsaurrekoan adierazitako salaketekin "harrituta" daude ezker subiranistako ordezkariak. "Oso deigarria iruditzen zaigu EAJren erreakzioa; izan ere, badaki eta ezagutzen du orain arte udal gobernuarekin izan dugun jarrera elkarlanekoa eta erakitzailea izan dela, eta, bereziki, osasun-



rialdian gaudenez geroztik. Asko izan dira udal gobernuari helarazi dizkiogun proposamenak; ez ditu aintzat hartu, eta erantzun ere ez ditu egin gehienetan. Askotan eskatu diogu udal gobernuari informazio etengabea eta lehen eskukoa, eta udal-gobernuak, alderdi politikoek eta udalerriko eragile ekonomiko eta sozialek elkarrekin lan egiteko foroak edo mahaiak sortzea. Gure proposamen bat bera ere ez dute aintzat hartu", dio EH Bilduk eguaztenean zabaldu zuen oharrean. Ados daude EAJk eginiko baieztapen batekin: deskalifikazioak ez dira politikarako tresna onak. "Guk ere uste dugu elkarriketa eta herritarren arazoak konpontzeko proposamenak izan behar direla nagusi gure udalerriko eguneroko politikan. Baina kritika politikoa ere sinesten dugu, egokiak ez diren politikak hobetzeko eta salatzen diren tresna gisa ulertzen baitugu", adierazi dute. Orain, "inoiz baino gehiago", elkarriketarako eta lankidetzarako garaia dela azpimarratu dute. "Ez da giroa gaiztotatzeko garaia ez eta Elgoibarko herritarrei erakundeen arteko desadostasun-sentsazioa helaraztekoa. Horregatik, EAJri eskatzen diogu ez iradokitzen eta ez sortzen gure udalerrian ez dagoen liskar girorik".



**Mila esker
zuen konfiantzagatik!**

Neguko bilduma berria!
Etor zaitez ikustera.

**Outletaren azken egunak,
dendan bertan.**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Arrisku-taldeetakoak ez diren pertsonek hitzordua eskatu beharko dute gripearen aurkako txertoa hartzeko

6 5 urtetik gora dituztenek, patologia kronikoren bat dutenek edo haurdun dauden herritarrek, alegia, arrisku-taldeetakoak, urriaren 13az geroztik dihardute gripearen aurkako txertoa hartzen. Mendaron kontsultategian eman dituzte txertoak eta Elgoibarren Jubilatuen Biltokian, Osakidetzaaren saretik kanpo ere egokitu baitituzte guneak txertoak segurtasunez emateko. Beste berritasun bat ere izan da aurtengo kanpainan, Osakidetza berak eman baitie hitzordua txertoa hartu dutenei. Egunero 160 lagun inguru igaro dira, batez beste, Jubilatuen Biltokitik, 2.000 bat lagun inguru kanpainaren fase honek iraun duen egunetan.



Kanpainaren hirugarren fasea urriaren 31n hasiko da, eta arrisku taldeetakoak ez diren pertsonek hartu ahal izango dute txertoa, dosiak amaitzen diren arte. Osakidetza jakitera eman duenez, guztira 558.000 dosi dituzte, iaz baino heren bat gehiago, eta bi milioi euroko inbertsioa egin dute. Txertoa hartu nahi duten herritarrek hitzordua eskatu beharko dute dagokien osasun-zentroan: Elgoibarko osasun zentroa: 943 032 610 / Mendaroko kontsultategia: 943 756 143.

Tokiko Berdintasun Politikak sustatzeko lan saioan hartu du parte Elgoibarko Udalak

Foru Aldundiak antolatuta, Tokiko Berdintasun Politikak sustatzeko lan saioan parte hartu zuten Gipuzkoako hainbat Udalek, tartean, Elgoibarkoak. Ane Beitia alkateak berak hartu zuen parte mahai inguruan, Maribi Joaristi Oiartzungo Udaleko Idazkariarekin eta Karmele Gomez Zumaiako Berdintasunerako teknikariarekin batera. Foru Aldundiaren programetan parte hartu duten zenbait udalen esperientziak partekatu dituzte bertan, eta besteak beste, berdintasuna zeharka lantzearen ideia izan zuten ardatz. Ildo honetan, Udalaren hurrengo erronka Elgoibarko Emakumeen Etxea definitu eta zabaltzea izango dela nabarmendu zuen alkateak. Elgoibarko Udalak Emakumeen Kontseiluarekin eta herriko beste hainbat taldetako eta arlotako emakumeekin elkarlanean diseinatu du Emakumeen Etxea. Era berean, Aldundiaren zerbitzuetan 2020-2022. urteetarako ezarri diren berrikuntzen berri eman zuten lan saioan.

Jaime Arrese omendu zuten barikuan Gipuzkoako Batzar Nagusietan, hil zutela 40 urte bete ziren egunean

Batzarkide eta Elgoibarko alkate izan dako Jaime Arrese Arizmendiari omenaldia egin zioten joan zen barikuan Gipuzkoako Batzar Nagusietan, hil zutela 40 urte bete ziren egunean. Komando Autonomo Antikapitalistek hil zuten Arrese 1980 urtean, Elgoibarren. Elkarretaratze isila eta lore eskaintza egin zituzten Batzar Nagusietan. Xabier Ezeizabarrena Batzar Nagusietako lehendakaria buru zela, Mahaiako kideek eta EAJ, EH Bildu, PSE-PSOE, Ahal Dugu eta PPko batzarkide-taldeetako ordezkariak hartu zuten parte ekitaldian. Horiez gain, Markel Olano diputatu nagusia, Foru Gober-



nuko Rafaela Romero eta Jose Ignacio Asensio diputatuak, eta Jon Gamba Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoko foru zuzendariak ere izan ziren. Baita ere, Jose Antonio Rodriguez Giza Eskubideen eta

Memoria sailburuordea, Aintzane Ezenero Gogora Institutuko zuzendaria, Enrique Ullibarriarana Biktimenganako arretaren arduraduna eta Andrea Arriola, Elgoibarko Udalaren izenean.

Eman ezin izan diren zerbitzuengatik dagokien abonamendu zatia itzuliko die Udal Kirol Patronatuak erabiltzaileei

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuaren Zuzendaritza Batzordeak erabaki du 2021eko urtarrilean itzuliko duela aurten eman ezin izan dituzten zerbitzuei dagokien kuotaen zatia. Martxoaren 14ko alarma egoerarekin dekretatu zuten instalazioen itxieraren ondorioz, abonatuak ezin izan dute hainbat hilabetetan Patronatuaren zerbitzuez gozatu. Itzulketa egiteko kontuan izan dituzte instalazio guztiak erabat itxita egon diren egunak (86 egun), eta instalazioak partzialki zabalik egon direnak (112 egun). Bi modu egongo dira diru hori bueltan jasotzeko: 2021ean abonatu izaten jarraitu nahi dutenei, 2020an eskaini ez diren zerbitzuei dagokien zenbatekoa deskontatuko diete 2021eko kuota. Aldiz, 2021ean abonatu izaten jarraitzeko asmorik ez duten guztiek horren berri eman beharko dute olaizagaharrera@hotmail.com helbidean urtarilaren 15a baino lehen, eta agiri bat bete beharko dute, datuak eman eta dagokion zenbatekoa itzuli ahal izateko.



Elgoibarren PCR baheketa masiboak egin ditzatela exijitzeko eskatu dio EHBilduk Udalarari

Elgoibarko EH Bilduk jakinarazi du Ane Beitia alkatearekin hitz egin dutela eta Osakidetzara jotzeko eskatu diotela, Elgoibarren ere PCR proba masiboak egitea exijitzeko. Elgoibarrek hainbat egun daramatza pandemiagatik semaforoa gorrian duela, eta EHBilduren ustez, herritarren artean kezka handitu egin da. "Ekiteko unea da, neurriak hartzekoa. Ezin gara besoak gurutzatuta egon goragoko instantzia batek neurriak noiz hartuko zain", esan dute. Horrelako larrialdi baten aurrean, Udalak "parte aktiboa" izan behar duela uste dute. "Ikusten ari gara guretik gertu dauden eta antzeko ezaugarriak dituzten udalerrietan baheketa masiboak egiten ari direla. Azpeitian, Azkoitian, Durangon... eta orain jakin dugu Ermuan eta Mallabian ere egingo direla. Eta Elgoibarren?". Alarma egoeran gaude, eta EHBildutik uste dute ezin dela denborarik galdu: "Azkar eta arin jardun behar dugu helburu bakar batekin: elgoibartarren osasuna zaintzea eta pertsona ahulenak babestea".

Koronabirusak baldintzatuko du urriko azken zapatuko feria

Elgoibarko Udalak eta Debemen elkarteak antolatuta, bihar izango da urriko azken zapatuko feria, baina ez da ohi bezalakoa izango. Koronabirusaren eraginez ezarritako alarma egoerak baldintzatuko du biharkoa, eta ondorioz, baserriarren salmenta postuak bakarrik jarriko dituzte. Ez dira egongo, beraz, ez umeentzako tailerrak eta ezta txosna ere. Baserriarrak 9:00etatik 14:00etara bitartean egongo dira Kalebarren Plazan.

Asteburuko meza ordutegiak

Datorren domekan, azaroak 1, Santu Guztien Eguna ospatzen da, eta Parrokiako arduradunek jakinarazi dute meza ohiko domeketako orduan emango dutela, 11:30ean. Egun horretan ohikoa izaten da arratsaldean errosarioa errezatzea, baina Koronabirusaren eraginez, arratsaldeko saio hori bertan behera laga dute. Astelehenean, berriz, Hildako Fededun Guztien Egunean, meza 19:00etan izango da.

Hilerrirako bisitak Domu Santu Egunerako ez uzteko eskatu du Mendaroko Udalak

Domu Santu egunean ere Eusko Jaurlaritzak zehaztutako neurriak bete behar direla gogorazi du Mendaroko Udalak, eta jende pilaketak saihesteko, hilerrira egin ohi diren bisitak Domu Santu eguna aurretik edo ondoren egiteko eskatu die herritarrei. Hau da, bisitak ez uzteko Domu Santu egunerako. Era berean, gogorazi die gehienez sei lagun batu ahalko direla hilerrian ere, gutxienez 1,5 metroko tartea gorde behar dutela euren artean, eta gainerako segurtasun neurriak ere hartu beharko dituztela.

30.000 euro jarriko ditu Elgoibarko Udalak "ekintzailtza sustatzeko"

Enpresa jarduera berrien ekimena bultzatzeko, enpresak sendotzeko eta negozio bideragarriak dituztenak mantentzeko dirulaguntzen programa bat jarri du martxan Elgoibarko Udalak, eta horretarako 30.000 euro inbertituko ditu. Hiru laguntza mota emango dituzte: jarduera ekonomikoa sortzeko; arlo digitala sendotzeko eta eguneratzeko; eta, jarduera ekonomikoaren ondorengotzarako. Sorrerarako eta ondorengotzarako dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitezkeen gastuen %90ekoa izango da, eta gehienez ere, 5.000 eurokoa izango da industria sektoreko enpresentzat, eta 2.500 eurokoa beste sektoreetakoentzat. Bestalde, arlo digitala sendotzeko eta eguneratzeko dirulaguntzei dagokionez ere, zenbatekoa diruz lagun daitezkeen gastuen %90ekoa izango da, gehienez ere, 1.000 eurokoa. Gastu hauek 2020ko abenduaren 31 baino lehen egin beharko dira. Dirulaguntza hauek elektronikoki eskatu daitezke www.elgoibar.eus webgunearen bitartez, edota aurrez aurre Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana, 2 - 943 741 050). Eskerak aurkezteko epea azaroaren 30ean amaituko da.

Azaroaren 12ra arteko epea dago Errigorako saskiak eskatzeko

Martxan da Errigoraren *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpaina, eta interesatuek azaroaren 12ra arteko epea dute saskiak eskatzeko. Laz bezala, aurten ere hiru saski egongo dira aukeran: Beltza (klasikoa) 50 euroren truke, berdea (ekologikoa) 60 euroren truke eta zuria (Berezia) 70 euroren truke. Eskerak errigora.eus webgunean egin daitezke.

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz. Bi kanpaina egin ohi dituzte: udaberrian, *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina, eta udazkenean, *Nafar hegoaldeko uzta Euskarari puzka*. Bigarren kanpaina horretan batzen den diruaren %25 Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzari laguntzeko izaten da. Aurten, baina, ekarpen bikoitza egingo dio euskarari Errigorak. Izan ere, 5 euroko ekarpen gehigarria egiteko eskatuko dute, AEK-ri, Seaskari eta Sortzen emateko, Korrika atzeratzeak, Herri Urrats bertan behera geratzeak eta Sortzenen jaia egin ez izanak eragindako diru-galerak arintzen laguntzeko.



Azpilgoeta auzoan norantza bakarrean zirkulatu ahal izango dute ibilgailuek

Azpilgoetako berrurbanizatzeko obrak direla-eta, urriaren 27tik aurrera, norantza bakarrean zirkulatuko dute autoek Azpilgoeta auzoan. Mendaroko Udalak jakinarazi duenez, biribilguneetik sartu beharko da eta Arranbidetik irten. Intxarbakoitzako aldapan aparkatu ahal izango da, mendia-aren kontra, baina aldiz, Zelaikua plazara joateko aldapan ezingo da aparkatu. Joan zen urriaren 5ean hasi zituzten obrak eta Udalak esan du otsailean amaituko dituztela. Berrurbanizatzeko proiektuaren ardatza pertsona ororentzako irisgarritasuna bermatzea dela nabarmendu dute Udal arduradunek; beraz, eremu osoa maila berean jarriko dute, espaloiak jaitisiz, mailak eta beste elementu batzuk kenduz. Era berean, erramu arbola zaharra dagoen parkearen eremua handitu egingo dute, eta, horrela, gune hori erdiguneko plaza bihurtuko. Bertan, berdegune berriak landatuko dituzte, lorontzi, zuhaixka, banku eta abarrekin. Azpilgoeta auzo erdiguneko 2.570 m²-ri eragiten dien lanek 282.504,83 euroko aurrekontua dute, BEZ gabe. Irisgarritasun lanez gain, Ur Zerbitzuekin elkarlanean, euri-uren eta ur beltzen sarea berrituko dute, egungo hoditeria ordezkatzuz.





Herrira mugatuta

Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuen domekan, eta autonomia erkidegoen esku laga zuen Covid-aren hedapenari aurre egiteko neurri murriztaileagoak jartzea. Horren harira, astelehenean bertan iragarri zituen Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegorako neurri berriak, eta biharamunean sartu ziren indarrean: geroztik, ezin da norbere herritik irten ez

bada lanera edo eskolara joateko, osasun kontuetarako edo mendekoak zaintzeko, baina mugakide diren herrietara joan ahal gara, "jarduera sozioekonomikoak" egiteko. Era berean, eremu publikoan eta pribatuan gehienez sei pertsona elkartu ahal dira, eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaitik ere ezin da irten, ez eta sartu ere. Etxeratze aginduaren ordutegia ere zehaztu zuen Jaurlaritzak: 23:00etatik 6:00etara. Neurriok hamabost eguneko iraupena izango dute printzipioz.

1. Etxeratze agindua: Espainiako Gobernuak alarma egoera ezartzean egindako proposamena onartu zuen Jaurlaritzak astelehenean: 23:00etatik 06:00etara ezin da kalean ibili, ez bada salbuespen kasu hauetan: lanera joateko, sendagaiak erostera irteteko, medikuarenera edo albaitariarenera joateko, legezko betebeharrak betetzeko, zaintza lanetarako eta «ezinbestekoa» den kasuetarako.

2. Erkidegoko sartu-irtenak: Espainiako Gobernuaren beste proposamen bat ere indarrean jarri du Jaurlaritzak: ezin da erkidegotik irten, salbuespen kasuetan izan ezean: lanera, medikutara edo ikasketa zentroetara joateko, edo menpekotasunen bat dutenak eta adinekoak zaintzera, azterketa ofizialak egitera, epaitegira edo notarioarenera... joateko Zirkulazioari dagokionez, erkidegotik igaro daiteke, baldin eta beste leku batera joateko bidaia baldin bada.

3. Udalerrietako sartu-irtenak: Itxierekin harago jo du Jaurlaritzak, ordea, eta ezarri du ezin dela norberak bizileku duen herritik irten: erkidegoko sartu-irtenetarako salbuespen kasu berberetan ez bada, ezin da beste udalerrri batera joan. Agindu horrek badu salbuespen bat: mugakide diren herrien arteko mugikortasuna onartuta dago, baldin eta banakako gizarte, ekonomia eta kirol-jarduerak edo aire zabaleko jarduera fisikoak egiteko bada.

4. Jendea elkartzea: Gehienez sei laguneko taldeak elkar daitzeko edozein lekutan. Berdin dio toki itxietan edo aire librean den, berdin dio eremu pribatuan edo publikoan den.

5. Ostalaritza: Tabernek eta jatetxeek 23:00etarako itxi behar dute. Nola astebarruan, hala asteburuan. Barran kontsumitzea debekatu egin dute, eta maskara jateko edo edateko baino ezingo da kendu. Ordutegi muga hori ez dute izango gasolindegietako tabernek, baina 23:00etatik 06:00etara garraioko profesionalei bakarrik eman ahaliko diote zerbitzua. Itxita segituko dute diskotekek eta gaueko aisialdiko establezimenduek.

6. Elkarte gastronomikoak: Itxita jarraituko dute.

7. Joko eta apustu etxeak: Tabernak bezala, 23:00etatik 06:00etara, itxita egongo dira.

8. Establezimenduek: Gehieneko edukiera adierazi beharko dute jendaurrean, eta neurriak hartu beharko dituzte segurtasun tarte mantentzeko. Gutxienez hiru aldiz aireztatu behar dute

lokala. 20:00etatik 08:00etara ezin dute alkoholik saldu (ostalaritzan, bai).

9. Azokak: Aire zabalean egiten diren azoketan, gehienez postuen erdiak jarri ahal dira, eta metro eta erdiko distantzia beharko da postu batetik bestera. Bezeroen joan-etorria ere mugatuta egongo da, distantzia mantentzeko.

10. Hilbeilak eta ehorzketak: Beilatokietan ezin dira 30 pertsona baino gehiago bildu aire zabalean. Barneko eremuetan, berriz, gehienez sei lagun batu ahal izango dira. Ehorzketetan eta errausketetan, aire zabalean 30 lagunekoa da muga, eta barruan, hamar lagunekoa. Uneoro maskara erabili beharko da.



11. Kultu lekuk: Ohiko edukieraren erdia bete ahal da gehienez, eta metro eta erdiko distantzia gorde beharko da pertsona batetik bestera.

12. Kultur jarduerak: Erdira jaitsi beharko dute ekitaldia egin nahi den lekuko edukiera, eta ezin izango dira 400 lagun baino gehiago elkartu —aire zabalean, 600 lagun—. Metro eta erdiko distantzia beharko da publikoan daudenen artean (elkarrekin bizi direnek aukera izango dute elkarren alboan jartzeko).

13. Kirola: Dekretuak hau dio: *Taldeko edozein kirol jarduera eten egiten da. Bakarrik bakarrik egin ahal izango da kirola.* Badiu salbuespenak: gimnasioetako ikastaroak taldean egin daitzeko —maskarekin—, eta onartuta daude lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean ari diren taldeen entrenamenduek eta partidak ere. Profesionalak ez diren gehienez sei lagun elkartu ahal izango dira entrenamenduetan, eta lehiaketak etenda daude. Kirol instalazioetan, edukieraren erdia bete ahal da gehienez. Eskola kirolari dagokionez, dekretuak dio 16 urteik beherakoentzako kirol jarduera antolatutak etenda geditzen direla.

14. Garraio publikoa: Ez dago edukieraren mugarik garraio publikoetan: Ibilgailuen gehieneko edukiera bete arte sartu ahal izango da jendea. Garraio publikoak 24:00etan du abiatzeko azken ordua, etxeratze agindua indarrean ezarri eta ordubetera. Taxiek eta ibilgailu gidaridunek ez dute ordutegi muga hori.

15. Auto pribatua: Ibilgailuan sartzen den gehieneko jende kopurua joan daiteke autoan. Elkarrekin bizi direnak soilik badoaz ibilgailuan ez dute maskara jarri beharrik izango; bestela, bai. 6 urteik gorako guztiek jantzi beharko dute maskara kasu horretan.



Kale inkesta _____

Larrialdi egoera ezarri du Espainiako Gobernuak eta neurriak gogortu ditu Jaurlaritzak. Zer irizten diozu?

MIGUEL ETXEBERRIA

“Nik ondo ikusten ditut neurri hauek, eta iruditzen zait geuk jarri behar dugula gehiago geure aldetik. Borondate handiagoa. Orain arte ez ditugu erabat bete ezarritako neurriak; erdizka gabiltza, eta gehiago egin dezakegu. Neurriak hartzea azkenean denon hoberako da. Kanean sei lagunetik gora ezin biltzea ere ondo ikusten dut, baina etxean lagako nuke. Familiakoak biltzea ez zait horren arriskutsua iruditzen. Kanean eta tabernetan kuadrillak biltzea bai ikusten dut gaizki, gaur batekin eta bihar beste batekin ibiltze hori. Ni neu, badaezpada, ez naiz horrelakoetan sartzen”.



MARIA ANGELES ZABALA

“Ulertzen dut neurri batzuk jarri behar direla, baina pena ematen dit. 16-17 urteko seme-alabak dituzten gurasoekin akordatzen naiz, haien egoera zaila iruditzen zaidalako benetan. Denok izan gara gazteak eta badakigu adin horretan zer nahi /behar duten. Denek nahi dute neska edo mutilak ezagutzea, lagunekin ibiltzea... eta pena ematen didate. Egia esan, adin guztietako jendea daukat orain gogoan. Pertsona edadetuek, esaterako, bakarrik pasatu behar dituzte euren azken urteak. Eta ba al dago hori baino gauza tristeagorik? Eta ume txikiak? Uste dugu ez direla ezertaz konturatzeko, baina umeak gu baino jakintsuagoak dira gauza askotan eta uste baino gehiago konturatzeko dira. Denera egokitzen dira, inor baino hobeto gainera, eta dena betetzen dute zintzo, baina guzti honek eragina dauka eurengan ere. Adin bakoitzari modu batean eragiten dio honek guztiak, eta nik pena handia sentitzen dut”.

NAGORE CANCIO

“Neurriak behar direla iruditzen zait, ez dakit hauek diren egokienak edo beste batzuk jarri behar diren, baina argi dago beharrezkoak direla. Orain arte ere bazeuden arauak, baina ikusi da jendeak ez dituela bete eta asko kutsatu direla. Gazteen kontra gauza asko esaten ari dira, baina ezin gaituzte denok zaku berean sartu. Gazte asko oso arduratsu ari dira neurriak betetzen eta kontzientziatuta daude koronabirusarekin. Nik ez dut uste arauak betetzea edo ez adin kontua denik, baizik eta norberaren izaera kontua. Ni neu kezkatuta nago, atzera egiten ari garelako berriz. Alarma egoeran gaude berriro, tabernak ixteko arriskua dago eta egoera nahiko beltz dago. Nire ustez ondo bete behar ditugu neurriak, lehenengo geure burua zaintzeko, baina baita gainerakoek babesteko ere”.



CAMILA ROVIRA

“Neurriak berandu iritsi direla iruditzen zait; egoera hainbeste okertu aurretik hartu behar zituzten. Neurri murriztaile hauek eta gehiago hartu behar direla uste dut, egoera honetan dena delako beharrezkoa. Nire semea Txinan dago, Shangain. BARRENEN ere atera zenuten, eta hark aurreratu zuen hona ere iritsiko zela han zutena, eta hemen gainera, gogorragoa izango zela. Eta halaxe izaten ari da. Hemen nahi duguna egitera ohituta gaude, Txinan ez bezala. Badirudi tabernetara ez bagara joaten edo botila festak ez baditugu egiten, ez dagoela bizitzerik, eta badago. Gazteek adinekoengan pentsatu behar dute eta ardura handiagoz jokatu beharko lukete. Guk arauak betetzen ditugu, eta eurek ere bete egin behar dituzte. Gazteak ez dabilta arduraz jokatzeko, eta heldu batzuk ere ez. Eta horrela gaude! Ni triste eta kezkatuta nago. Senarrari bihotzeko ebakuntza bat egin berri diote, eta ospitaleetan dauden neurriak oso zorrotzak dira. Hori ikusita ez dut ulertzen jendeak nahi duena egitea. PCR proba egin ostean etxean egon beharra dago eta batzuek hori ere ez dute betetzen! Emaitza jakin gabe irteten dira, batekin eta bestearekin elkartzen dira eta horrek ondorioak ditu. Une honetan arduraz jokatzeko eta neurriak betetzea dagokigu”.



JESUS MARI ASTIGARRAGA



“Egoera nola dagoen ikusita, zerbait egin beharra zegoen, baina uste dut agintariak eurak ere apur bat galduta dabilzala neurriekin. Egoera berria da denontzat eta ez da erraza neurriak hartzea. Oraingo alarma egoera behintzat ez da lehengoa, eta orain “gutxienez” autonomia erkidegoek dute egoera kudeatzeko aukera, arauak norberak bere neurriak egokitzeko ahalmena. Hori abantaila dela iruditzen zait. Dena dela, garrantzitsua jendeak neurriak betetzea izango da, bestela alferrik da. Arauak beteta zerbait hobetuko delakoan nago. Osasuna garrantzitsua da, baina ekonomiari begiratuta, dena ezin da gelditu. Jendeak lanean jarraitu behar du, derrigor. Herritar asko dago ekonomikoki estu, eta lanak ematen duen arnas hori laga egin behar zaie. Osasuna eta ekonomiaren arteko oreka lortzea zaila da, baina lortu behar da. Lehenengo osasuna da, du-darik gabe, baina ezin da jardun ekonomiko guztia gelditu, lehen egin genuen bezala. Egoera kezagarria da, eremu gorrian gaude eta norberak hartu behar ditu neurriak, izan gazte zein heldu. Jende pilaketak ebitatu, ahalik eta jende gutxienarekin nahastu, distantziak mantendu eta garbitasuna zaindu... Arduraz jokatzeko tokatzen zaigu”.

ELIAS LARRAÑAGA

“Denborak esango du neurriak eraginkorrek diren edo ez, baina argi dago zerbait egin behar zela. Orain arte hartu diren neurriak ez dira nahikoak izan eta egungo egoerak beldurra ematen du, benetan. Irratian entzun dut Donostiako Ospitaleko ZIUko arduraduna berbetan, eta egoera beltz jarri du. Kezkatzekoa da egoera, eta datuak ikusita normala da larritzea. Arduraz jokatzeko eskatzen digute behin eta berriz, eta iruditzen zait ez gabiltzala ondo jokatzeko. Gehiago jarri behar dugu gure partetik. Zaila dela badakit, gazteentzako bereziki. Gure egunerokoan agian ez daukate horrenbesteko eraginik neurri murriztaile hauek, baina gazteengan eragina handia da. Denok izan ditugu 18 urte, eta bada-kigu hori zer den, baina egoera honetan denok egin behar dugu ahalegina”.



*Olatz Urkia eta Ibai Etxabe
senare-mazte gorrak.*



Musukoak ere gortzen du

Denoi gertatu zaigu. Maskara edo musukoak jantzita gabiltzanetik nekezago aditzen diegu parekoei. Denok egin dugu: uneren batzutan maskara jaitsi dugu, parekoarekin komunikatzeko. Bada kolektibo bat, baina, bereziki sufritzen duena gai honetan. Gorrentzat, entzuten ez dutenentzat nahiz desberdin entzuten dutenentzat, benetako amesgaizto bihurtu dira musukoak. Komunikaziorako hesi zaizkie maskarak eta haiek erabiltzeko derrigorrak bizimodua zaildu die, lehenaz gainera. Ezin dituzte ezpainak irakurri, eta aurpegiko espresioa ezkutatuta, zeinu hizkuntza erabiltzeko ere zailtasunak dituzte, aurpegi-eskuetan darabiltelako hitza zeinu hizkuntzan.

“Zuek, edozer behar duzuela, beti daukazue telefonoz deitzeko aukera; guk, ez, eta orain, edozein izapide egiteko telefonoz deitu behar da leku guztietara. Galduta gaude”

- IBAI ETXABE -

Gorak dira Ibai Etxabe (Elgoibar, 1982) eta Olatz Urkia (Azpeita, 1982) senar-emazteak, baina lehen begiratuan zaila da igartzen. Audifonoarekin ondo moldatzen da normalean Ibai aurrez aurreko elkarrizketetan, baina lbairantz laguntza handia dena traba da Olatzentzat, audifonoak are gehiago gortzen dituelako haren belarriak. Probatu zituen umetan, eta burua lehertzerainoko mina eragiten zioten: “Audifonoarekin dena zen kolpe-hotsa, dena zarata”. %45eko entzumen urritasuna dauka Ibaik eta %58koa Olatzek. Sortzez dira gorrak, eta belarriko gailuarekin edo gailurik gabe, parean dutenaren ezpainak irakurri ahal izatea funtsezkoa da haientzat komunikazio egoki baterako. Musukoek, baina, estali dizkiete aho guztiak, ezkutatu dizkiete ezpainak, eta lehenaz gainera, zaildu egin zaie egunerokoa. Zaildu, lehen ere errazik ez zutelako. “Galduta” sentitzen dira, “bazertertuta”, eta gorrek dituzten zailtasunak bistartzeko asmoz eman dute elkarrizketa ere, gorren kolektiboa “ikusgarriago” egiteko. Jaiotzetik bertatik ohituak daude gainera kook baino ahalegin handiagoa egitera egunero, bai eta azalpen gehiago ematera ere, eta gertatu zaie gaur ere, hasierako agurrak egiteaz batera. “Ez dizugu ulertu. Maskara jaitziko bazenu apur bat...”, zuzendu zaizkio kazetariari. “Badakigu zer ari garen eskatzen eta ez zaigu erraza, badakigulako hein batean arriskuan jar ditzakegula parekoak musukoa kentzeko eskatzean, baina momentuan ez daukagu beste biderik”. Maskara derrigorrez jantzi beharrak eta aurrez aurreko zerbitzu asko bertan behera gelditu izanak “izugarriko mina” egin diela adierazi dute eta “ikaragarri” zaildu diela bizimodua. “Etsita sentitzen gara askotan”.

“Zuek, edozer behar duzuela, beti daukazue telefonoz deitzeko aukera; guk, ez, eta orain edozein izapide egiteko, telefonoz deitu behar da leku guztietara”, zehaztu du Ibaik. “Senideen laguntzarik gabe, galduta gaude. Nire ama da momentu honetan gure babes handiena, gure bitartekaria, gure interpretea. 69 urte beteko ditu amak azaroan, eta gaur, noan leku guztietara laguntzen dit: udaletxera, bankura, pediatarrenera... baina berak ere sarri esaten digu ez dela mundu honetan betiko izango”, gehitu du. Autonomo izan nahi dute. Gustatuko litzaieke anbulatorioan, banketxean edo beste edozein zerbitzutan hitzordu bat eskatu behar dutenean, bakarrik moldatu ahal izatea. Edo goizaldeko ordu txikietan umeren bat ondoezik jartzen zaienean larrialdi zerbitzuetakoekin zuzenean komunikatzea, ama edo etxeko besteren bat esnatzen ibili beharrean. Izan ere, herritarrei larrialdi egoeretan laguntza azkarra eta eraginkorra emateko martxan jarri zuten 112 telefono zenbakia ere “hutsa” zaie entzun ezin dutenei. “Proba egiteko eskatuko nizuke. Jantzi kasko on batzuk eta ibili haiekin hamar egunez. Ez okurritu min hartzerik”.

Autonomia nahi dutela diote behin eta berriz, baina eskubidez dagokien aukera-berdintasuna da eskatzen ari direna. “Aplikazio bat sortzea eskatzen dugu batetik, eta bestetik, zerbitzu publikoa

ematen duten lekuetan, harrerako batek gutxienez maskara gardena janztea”. Berehalakotasuna eskaintzen duen aplikazio bat behar dute. “Whatsappa esaterako sekulako erreminta bihurtu da guretzat komunikatorako, bereziki nire emaztearentzat, nik baino askoz zailtasun handiagoa duelako hitzez gauzak adierazteko”, nabarmendu du Ibaik. Egunero gaintu beharreko oztopoak zerrendatzen hasi dira eta amaigabea da zerrenda, are gehiago orain, pandemia egoeran. Ondorio bat nabarmendu dute: “Informazio asko galtzen dugun irudipena izaten dugu beti, eta tamalez irudipena baino gehiago da”. Bederatzi hilabete eta 7 urteko seme-alaba biren guraso dira, eta Olatzek aitortu du ama denetik burukomin handiagoa zaiola hori, seme-alaben hezkuntza prozesurako lehen mailako informazioa galtzen ari den sentsazioarekin bizi beharra. Pandemia hasi zenetik e-postaz komunikatzen dira lkastolarekin esaterako, eta ondo moldatzen dira, baina lehen, aurrez aurreko batzarretatik “triste” itzultzen zen sarri etxera Olatz, eta orain ere gertatzen zaio ikastolatik edo parketik bueltan. “Erdia inguru galtzen dut, badakit, eta kezkatzen nau horrek. Semearen gelakideen gurasoen atzetik ibiltzen naiz gero beti, zalantzak argitzeko. Estimaten diet ematen diguten laguntza”. Seme-alabez ari direla igarri-igarrikoa zaie kezka. “Oso momentu gogorak pasatu ditugu semearekin gure entzumen urritasunagatik. Orain, 7 urterekin, badaki adibidez ondo ahoskatu beharra duela amak ulertuko badio. Baina, lehen, ez, eta horrek izugarri frustatzen eta amorrarazten zuen. Ez da erraza izan”.

Hitza eta zeinu hizkuntza erabiltzen dituzte etxean komunikatzeko, baina ahozko komunikazioa lehenesten dute, ahal duten guztian. “Iruditzen zaigu hori landu behar dugula, umeek lehenengo hitza behar dutelako”, dio aitak. “Aitarekin hobeto moldatzen da orain ere semea, baina nik gauzak azaltzeko zailtasun handiagoak daukat eta une askotan semea zaila zaio onartzea. Baina asko laguntzen digu”. Denda eta bestelakoetan sarri egokitu zaio haurrari gurasoentzako interprete lanak egitea, eta kezkatzen ditu horrek ere zenbaitetan aita-amak. “Nik beti esaten dut 10 urte egiten ditueneko sekulako heldutasuna izango duela gure semeak, baina ez genuke karga izan nahi harentzat”, dio aitak. Konponbide erraza ikusten diote horri. “Badakigu ezin diogula jende guztiari maskara gardenak erosteko eskatu, baina gutxienez erakunde publikoetan, harreralanetan ari direnetako batek jantzi beharko luke, edo izan beharko luke eskura bat”. Eurek ere erosi zituzten lau etxerako, 15na euro ordainduta. Eurek biezat, semearentzat eta lbairn amarentzat erosi zituzten, baina gainerako guztiek ahoak estalita baldin badituzte, ezer gutxirako balio die. “Are gutxiago maskara eskas hauek. Jantzeaz batera lurruntzen dira, eta lausolausola jartzen dira. Gainera ez daude homologatuta. Maskara garden onak eta homologatuak behar ditugu”.

*“Maskara erabiltzera
derrigortu gintuzten egunean
hiru aldiz jaitsi zidan Unaxek
musukoa kokots parera
etxerako bidean,
ez zidalako ahorik ikusten”*

- ANNE ETXEBERRIA -

**MASKARA GARDEN
HOMOLOGATUEN BEHARRA**

Bat dator Anne Etxeberria ere (Elgoibar, 1982). “Maskara garden homologatuak behar ditugu, seguruak eta lurruntzen ez direnak”. Etxeberriak gogorarazi du martxotik dabilzala gorren elkarteak maskara garden homologatuak sortzeko eskatzen Eusko Jaurlaritzari, baina oraindik ez daudela. “Agindu zuten ikasturte hasierarako izango zirela, enpresa batekin hasiak zirelako lanean, baina azaroan gaude esate baterako, eta oraindik arrastorik ez dago”, esan du haserre. Semea [Unax] gorra dute Annek eta Santik [Carrascosa]. “Unaxek ez du ondo entzuten eta gorra da. Gorra izateak ez du esan nahi ezer entzuten ez duenik, baina. Entzuten ez duenari edo desberdin entzuten duenari esaten zaio gorra”, argitu du aurrera egin aurretik Annek. Hipoakusia diagnostikatu zioten Unaxi eta geroztik hamaika ate jo dituzte informazio eta baliabide eske gurasoek.

Unaxek berak ematen die indarra gurasoei. “Txapeldun bat da. Txapeldun batzuk dira. Zentzumen bat falta arren, beste gaitasun batzuk gartzetzen dituzte mundu honetan aurrera egiteko”, dio amak, semeaz harro. Audifonoak erabiltzen ditu Unaxek bost hilibete zituenetik eta aurrez aurreko elkarriketetan, distantzia motzera eta inguruan zarata handirik izan ezean ondo moldatzen da entzuteko, baina Unaxentzat ere, oso lagungarria da hizketan ari zaionaren ezpainak irakurtzea. Maskara beste hesi bat gehiago da komunikaziorako eta inork gutxik jarriko du, gaur, hori zalantzan. “Zeinu hizkuntza ere zailtzen du, aurpegiko espresioa galtzen delako”, zehaztu du horren harira Annek. Ahoz komunikatzeko gai den arren, zeinu hizkuntza irakasten ari zaizkio Unaxi Aransgin, Gipuzkoako pertsona gorren familien elkartean, Bergaran.

“Guretzat amesgaizto bat izan da maskararen erabiler a derrigortu izana”, gehitu du. Etsita eta egoerak gaina hartuta gogoratzen du Annek semea, maskararen erabiler a derrigortu zuten egunaz oirtzen denean. “Egun horretan hiru bat aldiz jaitsi zidan Unaxek maskara kokots parera etxerako bidean, ez zida-

lako ahorik ikusten. Etxeratu ginenean azaldu nion hurrengo egunetik aurrera kalean denek jantzi beharko zutela eta kosta zitzaion onartzea. ‘Zergatik?’, ‘Zergatik?’ galdetzen zigun behin eta berriz, etsita”. Geroztik, Annek maskara garden a erabiltzen du semeare-

kin komunikatzeko, nahiz eta zehaztu duen leku itxietan eta biren arteko elkarriketetan maskararekin ere ondo moldatzen dela semea. “Zarata dagoenean eta distantziara hitz egiten diotenean sortzen zaizkio zailtasunak, ezpainak irakurri ezin baditu”. Eta gehitu du: “Arazorik gabe entzuten dugunok ez gara konturatzen zer ahalegin egin behar duten, zenbaterainoko traba zaien maskara gorrei, inguruan entzumen urritasuna duen norbait egokitu arte”.

Eta gertatu zaio egoera deserosoak bizi beharra ere horren kontura. Kalean maskara erabiltzea gomendagarria baino ez zenean batek bai no gehiagok hartu



Anne Etxeberria, Alemaniatik ekarritako maskara gardenarekin.

“Aukera berdintasuna eskatzen dugu; ez gehiago: Gure semeak eta entzumen arazoak dituzten gainerakoek ingurukoekin komunikatu ahal izateko bideak errazteko eskatzen dugu”


- ANNE ETXEBERRIA -

zation kargu Anneri, gabe zebilelako. “Supermerkatura joateko-eta janzten nuen bakarrik Unaxekin nengoetan”. Orain, berriz, maskara gardena erabiltzen duenetik, batek baino gehiagok pentsatu du “modernoagoa” delako janzten duela maskara gardena. “Oker daude. Beharra da”. Maskarak ere hamaika eta bi probatu ditu Annek, topatu dituen denak, baina ganorazko bakar bat ez du aurkitu gaur artean. “Kalean ere gelditu izan dut jendea nik, maskara gardenekin ikusi ditudanean”, dio. Orain gehien erabiltzen duena Alemanian ekoizitakoa da, eta Bilboko enpresa baten bidez ekarri du, 26 euro ordainduta.

Maskara gardena erabiltzen dute Unaxen amak, eta maskara gardena erabiltzen dute Unaxen irakasleek ere ikastolan. Maskara gardenak, baina, ez daude homologatuta, eta horrenbestez, babes neurri gehigarriak erabili behar dituzte gaur gaurkoz irakasleek, maskara gardenak jantzi nahi badituzte: metakrilatozko manpara eta segurtasun tarte handiagoak, esaterako. Gainera, gainerako ikasleengana gerturatzeko maskara aldatu behar izaten dute irakasleek, ezin baitute maskara gardenarekin gerturatu. Baina Unaxen lagun guztiek maskara arruntak erabiltzen dituzte, eta gelan, distantzia jakin batera jarrita daude bata bestearengandik.

Eta jakina, distantzia eta maskarak tarteko direla, Unaxek “informazio asko” galtzen du. “Askotan konturatu ere ez da egingo gelakideak hitz egiten daudenik... Zer esango dizut ba? Gorren hezkuntza eskubideak ez dira inondik inora bermatzen”. Annek aipatu du etxean baloratu zutela Unaxen gelakide guztiei maskara gardenak erostea ere semearen hobebeharrez, baina laster jabetu zirela homologatuta ez egotean ezin zituztela gainerako umeak maskara gardenak erabiltzera behartu, ez eta erabiltzeko eskatu ere haien gurasoei. Hala ere, gelakide batzuen gurasoak gerturatu zitzaizkien erosteko interesa agertuz. “Ikaragarri estimatu nien hori eta nahi nuke hori publikoki hemen esatea. Eta eskertu nahi nioke IMHri ere, pantaila gardenak eman izana”.

Edonola ere, arazoa ez da ikastetxera mugatzen. Kalean ere maskara arruntak erabiltzen dituzte haurrek jolasean eta jolasa ere konplikatzen zaio batzuetan Unaxi. “Tal-dean jolasean ari direnean ez da erraza haurrak konturatzea, eta horregatik hunkitu ere egiten naiz ikusten ditudanean



Unaxen lagunak maskara apur bat jaisten nire semeak entzun ditzan. Distantziara hitz egitean, jabetzen ez bada berari ari zaizkiola, Unaxek ez du entzuten. Gerturatu egin behar zaizkio, keinu bat eginda-edo. Distantziara eta maskara jantzita zaila zaio entzutea. Komunikazioa erraztuko genioke maskara garden homologatuak izango bagenu”. Medikarenera edo kontsultetara gurasoen eskutik joaten da Unax momentuan eta gaur gaurkoz ez du aparteko arazorik leku horietan, gurasoen laguntza duelako halakoetarako eta zaratarik gabeko lokaletan ez duelako arazorik aurrez aurreko elkarriketetan bakarrik moldatzeko. Baina kezka hori beti dute gurasoek. Moldatzen ote da? “Atzo bertan galdetu nion nola moldatzen den adibidez litxarkeri erostera doanean, eta ondo moldatzen dela erantzun zidan, baina badaki halakoetan bestela maskara apur bat jaisteko eskatu behar diola parean duenari. Hitz eginda daukagu hori”.

Administrazioari zuzendu diote eskaera Unaxen gurasoek. Gorren inklusiorako gaiak aintzat hartzeko eskatu diote. “Administrazioarentzat gorrena kolektibo txikia da eta ez diete lehentasunik ematen haien beharrei, gutxiago oraindik dirua jarri behar bada. Bukle magnetikoa, esaterako, eraikin publiko guztietan egon beharko litzateke eta ez dago”. Sistema hori inplantatuta, edozein itxarote gelako bozgorailu, hitzaldi eta antzerki zein film zuzenean audifonora konektatzen dira ulermena erraztuz. “Gero eta jende gehiagok erabiltzen ditu audifonoak eta garrantzitsua da”. Elgoibarko Udalaren 2018ko irisgarritasun planaren kopia atera du, han ere jasota dagoela erakusteko. Eraikin publikoetako itxaroteko gela eta aretoetan bukle magnetikoa jarri behar dela zehaztuta dator planean. “Baina errealitatea urrun dago hortik. Iaz Herriko Antzokian bukle magnetikoa inplantatzeko eskaera egin nuen (3.000-5.000 euroko kostua dauka). Denboran luzatuko zela erantzun zidaten eta zaila ikusten zutela urte hartan jartzea, kamerinoak berritu behar zituztelako (50.000 euro). Aurten jarri dute, baina zalantza daukat EH Bilduk eskatu izan ez balu, jarrita izango ote genukeen”, esan du. Irisgarritasun planetan jasotakoak betetzen ez direla ikusteak amorrarazten du Anne: “Aita Agirre kulturgunea eraikin berria da, eta hasieratik izan beharko luke bukle magnetikoa sartuta, baina ez dago”.

Eskean ibili beharra ez dute ulertzen, eskubidez dago kiena ari direlako eskatzen. “Aukera berdintasuna eskatzen dugu; ez gehiago. Gure semeak eta entzumen arazoak dituzten gainerako pertsonen ingurukoekin komunikatu ahal izateko bideak jartzeko eskatzen dugu. Ez da gauza handia”.

Eskean ibili beharra ez dute ulertzen, eskubidez dago kiena ari direlako eskatzen. “Aukera berdintasuna eskatzen dugu; ez gehiago. Gure semeak eta entzumen arazoak dituzten gainerako pertsonen ingurukoekin komunikatu ahal izateko bideak jartzeko eskatzen dugu. Ez da gauza handia”.



▶ ALFONSO EUGI eta AMAIA LARRAÑAGA

ELGOBARKO AEK EUSKATEGIKO ARDURADUNAK

Datorren urtean egitekoa zen Korrikaren 22. edizioa urtebetez atzeratzea erabaki du AEK-k, koronabirusaren pandemiak hala behartuta. Horren harira, Elgoibarko AEK Euskaltegiko Alfonso Eugi eta Amaia Larrañagarengana jo dugu, 2021eko Korrika ez egiteak izango dituen eraginei buruz galdezka.

- AINHOA ANDONEGI -

“AEKrentzako kolpe itzela izango da Korrika ez egitea”

◆ Datorren urtean egitekoa zen Korrika 2022ra atzeratzeko erabakia hartu du AEK-k. Zein izan da arrazoi nagusia?

Segurtasunik eta bermerik ez dagoelako atzeratu dute. Zuhurtziagatik, segurtasunagatik eta erantzukizunagatik hartu behar izan da erabakia. Azken batean, ez dago bermerik gaur ondo dagoena hemendik astebetera ondo egoteko, eta, agian, Korrika ezin da pasatu herri batetik. Egoera hain aldakorra den honetan, erabaki dugu urtebete atzeratzera 22. Korrika.

◆ Nola hartu duzue berria Elgoibarko AEK euskaltegian?

Batetik, pisu bat albo batera laga dugula sentitu dugu, bestela ere kurtsio hasiera zoramena izaten delako, eta, aurten, are gehiago. Korrika lan estra eta boluntarioa izaten da *AEKideontzat*, egunerokoari gehitu behar izaten dioguna. Bestetik, ederki asko dakigu Korrikak duen helburuetako bat, zoritxarrez, oraindik ere, bitarteko ekonomikoak lortzea dela, eta Korrika izaten den urteari eta hurrengoari dagozkien aurrekontuetan eragina izaten duela. Behar-beharrezkoa dugun bitartekoa da, eta diru hori ez izateak ondorioak izango dituela badakigu, eta oraingoz ez dakigu zehazki nola beteko dugu galera ekonomiko hori. Kontu honetan erakundeek ere izango dute zer esana eta zer eginga, aintzat hartuta, azken edizioetan, erakundeetatik Korrikak jaso izan duen babesa, eta, erabaki hau hartu bada, ez delako izan kapritxoz, baizik eta zentzuz jokatzearren.

◆ AEK-ren ekimen nagusia da Korrika. Nola eragingo dizue atzeratze horrek?

AEKrentzako kolpe itzela izango da Korrika ez egitea. Daurkagun abantaila da erakunde dinamikoa garela eta beti egokitu izan garela egoera berrietara, onetara eta txarretara. Orduan, uste dugu jarraituko dugula gure zerbitzua % 100ean ematen arlo guztietan.

◆ Eta, euskarari zein kalte eragingo dio Korrika ez egiteak?

Korrikaren helburu ekonomikoa aipatu dugu aurrez, baina Korrikaren beste helburuetako bat, hain zuzen, herritarrak euskararen inguruan kontzientziatzea da. Beraz, Korrika egingo ez dugunez, kontzientziatze hori ere hortxe geldituko da. Euskararen egoera, erabilera batez ere, argi gorria piztuta geratuko da, berdera pasatzeko aukera hori gabe, izan ere, eta datuek diotenaren arabera, jendeak, gehienbat, kalean hitz egiten du euskaraz, eta Korrika zerbait bada, kalearekin lotutako ekimena da.

◆ Korrikaren ordezkio beste ekimenen bat egiteko aukerarik egongo dela iruditzen al zaizue?

Oraingoz, guk dakigula, ez da puntu hori jorratu. Akaso, aurrerago aztertuko dugu. Dena dela, orain “kalera” jotzeko aukera Euskaraldiak emango digu.



1946

Mendaroko Alkorta baserriko senideen argazkia dugu gaurkoa, Jose Mari Urainen argazki artxibokoa. Datatu gabea da berez argazkia, baina Urainek dio berak 18 urte zitueneko argazkia dela, eta hortaz, 1946. urtean egindakoa izan behar duela. Jose Mari bera eta anaietako bat ez beste senide guztiak hilak daude. Ekarri ditzagun gogora Alkortako senide hauen izen-abizenak.

Behoko lerroan: Francisco Urain (†) eta Maria Lazkano (†) senar-emazteak, seme-alabez inguratuta. **Goiko lerroan:** Jose Mari, Jose (†), Santi (†), Patxi (†), eta Julian. **Erdiko lerroan:** Manuela (†), Mainixi (†), Pedro (†), Kontxita (†), eta Josefa (†).

Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera ditzuzu guri helarazteko:

e-posta:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Alta Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



BARREN



Debabarreneko ESko aztarnarien taldea.



▶ LAURA MARTIN ROCA

DEBABARRENEKO AZTARNARIEN TALDEKO KOORDINATZAILEA

Koronabirusaren kontrako borrokan ezinbesteko lana egiten ari dira aztarnariak, positibo eman duten herritarren kontaktuak azkarrago atzemateko eginahalean ari direlako. "Familian eta gizartearen" detektatutako kasuak jaso eta kudeatzen dituzte, lan-arloan atzemandako kasuak prebentzio-zerbitzuek eta Osalanek, aztertzen dituztelako. Eta aztarnarien egitekoa zein den hobeto ezagutzeko Debabarreneko ESko aztarnariengana jo dugu argibide eske. Talde osoaren izenean, Laura Martin Roca koordinatzaileak erantzun die gure galderari, idatziz.

- AINARA ARGOTIA -

"Pertsona askok oztopoak jartzen dituzte lan-arrazoiengatik, baina azaltzen diegu osasun publikoko arazo bat dela"

♦ **Gure eskualde osoari ematen diozue zerbitzua Debabarreneko ESko profesionalok. Zenbat profesional zarete, zein arlotakoak? Nola zaudete antolatuta? Non duzue egoitza eta zein da zuen lan-eremua?**

Aste honetatik aurrera, taldean 12 pro-

fesional gaude. Eibarko Ospitaletik lan egiten duten gizarte-langile bat, 4 erizain, 6 fisioterapeuta eta administrari bat ditugu, asteleheneretik igandera 8:00etatik 22:00etara. Gainera, sarean lan egiten dugu, hau da, gure eskualdeko kasuak amaitzen baditugu, beste erakunde bati

laguntzen hasten gara, eta alderantziz. Beste erakunde batek bere positiboak kudeatzen amaitzen badu, beste erakunde bati laguntzen dio. Lankidetzalana egiten da sarean, erakunde batzuek beste batzuei lagunduz; erakunde bakoitzak sare orokor baten barruan lan egiten duen bere

“mini” sarea du.

♦ **Gauza jakina da koronabirusean positibo eman dutenen kontaktu estuak ahalik eta azkarren detektatzea dela egiteko nagusia, transmisio-katea eteteko, baina zeintzuk beste eginkizun dituzue?**

Guk familian eta gizartean detektatutako kasuak jaso eta kudeatzen ditugu, positibo eman duenarekin harremanetan jartzen gara eta miaketa egiten dugu, hau da, gaixotasunaren eraginpean egon diren pertsonak identifikatu, informatu eta kudeatzen ditugu, transmisioa prebenitzeko eta geldiarazteko. Gainera, eguneroko Osakidetzako osasun publikoko, epidemiologiako eta koordinazioko teknikariek koordinatuta lan egiten dugu. Horiekin batera, gure ESko koronabirus-fokuekin zerikusia izan dezaketen kasuak ere baloratzen ditugu. Beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak gure udaletan erroldatzeari buruzko datuak ere jasotzen ditugu, baheketa bidez egiten den PCR bat tramitzeko. Eskara izapidetu eta emaitzaren berri ematen dugu.

♦ **Nola hartzen dute herritarrek zuen deia? Eta zeintzuk izaten dira deia jasotzen duten herritarrek egiten ohi dizkizuen galdera nagusiak?**

Era guztietako erreakzioak daude. Positiboak direla jakin ondoren laguntzeko oso prest dauden pertsonak daude, bai eta era guztietako oztupoak jartzen dituzten pertsonak ere; horiekin enpatizatzea oso zaila da, eta batzuetan ez dugu lortzen. Pertsona askok oztupoak jartzen dituzte lan-arrazoiengatik, baina azaltzen diegu osasun publikoko arazo bat dela eta baja justifikatuta dagoela.

♦ **Zabaldu zen hasieran jende bateko uko egiten ziola bere kontaktu estuak izan direnen izenak emateari, arrazoi ezberdinak tarteko. Zer suposatzen dute traba horiek zuentzat? Nola egiten duzue jatorria iristen saiatzeko?**

Denbora behar da, behin eta berriz adierazi behar baitzaie sintomarik ez izateak zer ondorio izan ditzakeen kuadrillan, familian, udalerrian... eta kontaktu

estuak izan direnen izenak ezkutatzeko transmisio-katea moztea ezinezko egiten duela.

♦ **Zein irizpide erabiltzen dituzue pertsona bat kontaktu estua dela erabakitzeko?**

Kontaktu estua da kasuaren leku berean egon den edozein pertsona, 15 minutu baino gehiagoan 2 metro baino gutxiagora. Gainera, auto berean bidaiatu duten pertsonak kontaktu estutzat jotzen dira. Gainera, beste irizpide batzuk erabiltzen dira, hala nola espazio irekiak eta itxiak, aireztapena duten espazioak, espazioaren metro koadroak eta egiten den jarduera mota.

“Orain arteko ebidentziaren arabera, kasu batek alta jasotzen duenean, kutsatzeko gaitasuna ia nulua da”

♦ **Maskara erabiltzea, positibo den horrekin kontaktua espazio itxian edo aire librean eduki izana... Zalantzak ere sortzen dira batzuetan. Demagun bulego itxi batean, mahaitik mahaira metro eta erdiko distantzia mantentzen den kasuan. Batek positibo eman ezker, denak isolatu beharko lirateke? Ala maskara janzteak saiestuko luke denak konfinatzea?**

Aztertu egin behar da egoera bakoitza, bulegoko pertsona-kopurua, haren dimentsioak, egiten duten jarduera mota, leku horretan zenbat denbora igarotzen duten, aireztapena...

♦ **Beste kasuistika bat, azken egunotan Elgoibarren eta Mendaron ikastetxeen bueltan izan diren hainbat kasuri lotuta. Haur batek positibo eman duenean haren gela osoa barkartu izan dute (48 orduko irizpidea bete denetan) eta baita ondoko gelako ume jakin batzuk ere bai. Kasu horietan zeinek erabakitzen du zein den**

kontaktu estua? Zuek? Ikastetxeak? Gaixoak berak? Eta zer azalpen du gelakideak konfinatzeak eta gela horretako tutorea ez?

Eskola-miaketa egiteko, jarraitzen dugun prozeduran ikastetxeak, ikasleak, familiak eta Osakidetzak parte hartzen dute. Jokatzeko modua desberdina da haurren adinaren arabera eta maskara erabiltzearen edo ez erabiltzearen arabera.

♦ **Kontaktu estuek, positiboak zein negatiboek, etxean isolatuta egon behar dute. Zenbat egun? Eta zenbat PCR egiten zaizkie?**

Kasu positiboan isolamendua 10 egunekoa da emaitza jasotzen denetik, betiere azken 3 egunak sintomarik gabe egon badira. PCR negatibo eman duten gainerako kontaktuak 10 egunetz isolatzen dira, kasuarekin azken kontaktua izan dutenetik, eta PCR proba errepikatzen da, bigarren PCR hori negatibo bada eta pertsonak sintomarik ez badu, berrogeialdia amaitzen da.

♦ **Positibo direnak barkartu egin behar dira, baina nolako jarraibideak ematen dizkiezue etxean beste batzuekin batera bizi diren positiboek?**

Oro har, hauek dira gomendioak: Komunera joateko bakarrik irten daitezke gelatik positibo eman dutenak. Bi bainu-gela badaude, positibo eman duenak bat erabiliko du, eta familiakoek bestea. Bainu bakarra badago, erabili ondoren lixibarekin desinfektatu behar da. Arro-pak bereizita eta ur beroarekin garbitu behar dira (60/65 gradutan).

Otordua gelara eraman behar zaio erretilu batean, atea jo eta berak jaso behar du. Platerak eta mahai-tresnak ontzi-garbigailuan garbitu behar dira, edo bestela azkenean, gainerako ontzi guztiak garbitu ostean, eta ur beroarekin. Isolamendu aldian tresna berberak erabili behar dira. Gelatik irtetea beti maskara erabili behar dute. Ez da etxean bisitarik jaso behar.

♦ **Etxe batean, positibo eman duena negatibo eman dutenak baino aurretik gelditu ohi da libre, beste probarik**



Andrea Fernandez Cobos elgoibartarra (eskuinean), Mikel Recio eta Amaia Telleria lankideekin.

egin gabe. Ez da erraza ulertzeko. Azalduguzu horren arrazoia.

PCRa diagnostiko-proba bat da, eta positibo bada, ez da errepikatu behar. Orain arteko ebidentziaren arabera, kasu batek alta jasotzen duenean, kutsatzeko gaitasuna ia nulua da. Hasieran negatiboa ematen duten kontaktuei errepikatu egin behar zaie proba, berrogeialdian zehar positibizatu diren jakiteko.

♦ **Gaitza pasatu dutenek immunitatea garatzen dute. Positibo eman duen haur bat libre da berriro konfinatuzetik, beste gelakide batek positibo emango balu? Zenbat denborarako? Eta berdin nagusiekin, jakina. Immunitatea betirako ez dela jakinda, zein irizpideren arabera hartzen dira horrelako erabakiak?**

Oraingoz, gaixotasuna aurreko 3 hilabeteetan igaro bada eta sintomarik ez badu, ez du isolamendurik behar. Denbora gehiago igaro bada, serologia eta PCRa eskatzen dira, eta antigorputzak baditu, berrogeialdi horretatik libratu daiteke.

♦ **Positiboa eman duena salbuetsita dago maskara erabiltzetik?**

Ez, ez dago erabiltzetik salbuetsita. Prozesu horren ondoren alta eman zaien pazienteei prebentzio-neurriak gainerako herritarrek bezala egiten jarraitu behar dutela adierazi zaie.

*“Alta jaso duten
pazienteei
adierazi zaie
prebentzio-neurriak
gainerako herritarrek
bezala betetzen
jarraitu behar dutela”*

♦ **Mugikortasuna mugatzeko neurri berriak iragarri ditu Jaurlaritzak eta semaforo sistema bat ere ezarri du udalerririk zein egoeratan dauden bereizteko. Gorrion dago Elgoibar. Positiboa den bakoitzeko zenbat kontaktu estu ari zarete antzematen zuek? Barneratuta al daukagu herritarrok gure harremantzeko moduak aldatu behar ditugula?**

Batzuek bai eta beste batzuek ez dute barneratu. Egunerokotasunak erakusten digu gaiarekin oso sentibera den jendea dagoela eta harremanak murriztu eta neurriak zorroztu dituela, baina zoritxarrez beste jende askok ez die gomen dio horiei kasurik egiten, eta ia egunero aurkitzen ditugu kontaktu asko eta asko.

♦ **Radar Covid aplikazioa ere martxan da? Zertarako da erabilgarria?**

Radar Covid aplikazioa denon eskura dagoen tresna bat da, kasu batekin kontaktu estuan egon zaren jakiteko. Bluetooth geolokalizazioarekin funtzionatzen du. Bi miaketa-talde ari dira kontaktu posible horiez arduratzen. Kontakutxo posible bakoitzarekin azterlan bat egiten da, kasuaren konfidentziasuna bermatuta. Oraingoz, aste gutxi daramatzagu martxan Euskadin.


♦ **Semaforo gorrian dago Elgoibar une honetan. Inguruko beste herri batzuetan test masiboak egin izan dituzte, urrutira gabe Azpeitian eta Azkoitian. Zeren arabera erabakitzen da herri batean test masiboak egitea ala ez?**

Ez daukagu informazio hori.

♦ **Eta bukatzeko. Koronabirusa beste gairik ez dagoen sasoiari, nola egiten duzue arnasa hartu eta deskonektatzeko zuek, gaixoei eta haien kontaktu zuzenekin harreman estuan zaudetenok?**

Galdera ona: beste edozein pertsona bezala saiatzen gara bizi dugun egoera honetatik deskonektatzen arrisku handirik ez dakarten jarduerak eginez: mendira joan, irakurri, bideo-konferentziak egin, kirola eginez barka eta aire librea...

Kirol ikastaro guztiak eten ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak, baina zabalik mantenduko ditu banaka erabiltzeko instalazioak



Eusko Jaurlaritzak Covid kutsatzeen gorakada geldiarazteko neurri berriak eman ditu ezagutzera asteon. Birusaren egoera epidemiologikoa larriagoa den guneetan, Elgoibarren kasu, neurri murriztailegoak ezarri dituzte. Irizpide berri horiek kontuan izanda, kirol ikastaro guztiak etetea erabaki du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Hortaz, eta abisu berria eman arte, ez da zumba, pilates, Gap, spinning, K-Stretch, Yoga edota Elgoibar Sasoian programako saiorik izango. Elkarrekin ematen dituzten ikastaroak ere (dantza, karate eta boxeoa kasu) bertan behera geratuko dira. Koronabirusaren zabalpenaren berri ematen duten datuak “kezka garriak” direlako hartu dituzte erabakiok kirol patronatuko arduradunek eta arduraz eta elkartasunez jokatzeko eskatu diete herritarrei. Banaka erabiltzeko kirol instalazioak, berriz, irekita egongo dira. Igerilekua orain arte bezala erabili ahal izango da, ohiko sistemarekin: aurretiko hitzorduekin), baita tenis eta padel pistak, squash eta frontoi




txikia ere, hau da, erabilera indibidualako jarduerak mantendu egiten dira. Aldiz, areto futbolerako kantxa edo futbol zelaia ezin izango dira alokatu. Lagun talde handiek alokatzen dituzten areto handiak, alegia, itxita egongo dira. Olaizagako zein Mintxetako muskulazio gelak zabalik mantenduko dituzte. Erabiltzaileek orain arteko sistema berdinarekin erabili ahal izango dituzte.

Goñati gimnasioa zabalik

Mendaroko Udalak jakinarazi duenez, Goñati gimnasioak murrizketa gehigarriak ezarri gabe jarraituko du zerbitzua ematen, beti ere Jaurlaritzak emandako aginduak jarraituta. Horien arabera erdira murriztu behar izan dute gimnasioak duen 15 laguntzako aforoa. Ikastaroetan parte hartzen duten lagunak maskarak erabili beharko dituzte eta gehienezko parte-hartzaile kopurua sei lagunekoa izango da talde bakoitzeko.

Ioseba Tamayo gailendu da distantzia erdiko Espainiako Duatloi Txapelketan, bere adin tartean

Distantzia erdiko Espainiako Duatloi Txapelketa jokatu zuten, urriaren 25ean, Sorian, neurri oso zorrotzak hartuta, koronabirusa dela-eta. Elite mailako artean Pello Osoro eibartarra izan zen azkarrena 02:30:21 denbora eginda. Jaz Eibar Triatloi Taldeko kidea den Ioseba Tamayo Rojo (Elgoibar, 1991) adin taldeetan lehiatu zen eta bera izan zen azkarrena 25 eta 29 urte artekoen artean, 02:48:00 denborarekin. Lasterketako korrikako lehen zatian 14 kilometroko ibilbidea osatu zuten, 56 kilometrokoa zen bizikletako atala eta 7 kilometrokoa saltakako azken proba. Erlojupeko proba baten antza izan zuen probak, banan-banan irten baitziren pilaketak sahiesteko. Hala, erreferentziarik gabe, beren buruen aurka lehiatu behar izan zuten kirolariek. Gainera, ikuslerik gabe jokatu zen eta korrikako bi zatik Los Pajaritos estadio barruan egin zituzten.



Arg.: Naïke Ereñozaga



Ardi galdua bezela ibilli: Beti bakarrik, lagun-kuadrillarik gabe, dabilenari esaten zaio. Esanahi berarekin erabiltzen da beste hau ere: **Uztarri bakarreko laguna izan.**

2021erako egutegiak baditu argazki eta marrazkiak

Irudi bat bazterkeriatik berdintasunera izan da Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak aurtengo lehiaketarako aukeratu duen gaia. Elgoibarren bizi edo lan egiten dutenek zuten parte hartzeko aukera, eta bakoitzak 6 argazki aurkeztu zitzaizkeen gehienez. 17 herritarrek hartu dute parte (6 emakumezko eta 11 gizonzko) eta 72 argazki aurkeztu dituzte guztira. Udaleko ordezkarienez gain, Ongarri argazkilari taldeko ordezkari bat eta Emakumeen Kontseiluko bi ordezkari izan dira epaimahaiak. 12 argazki aukeratu dituzte egutegi handirako eta argazki bat txikirako. Argazki bakoitzak 80 euroko saria jasoko du. Hauek dira irabazleak: Regina Isasti Amallobieta, Jose Ramon Cabrera Cid (2 argazki saritu), Alberto Fernandez Picon, Asier Orbea Ostolaza (3 argazki saritu), Gurutze Ariznabarreta Acha, Jabi Leon Casado (2 argazki saritu), Julen Ansola Irueta eta Oier Ramos Miguel (2 argazki saritu).



José Ramón Cabrera Cid



Nora Arrizabalaga Rodríguez,



Uxue Gutierrez Celaya-Zugadi



Oier Ramos Miguel

Marrakzi lehiaketari dagokionez, Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako LH5eko ikasleek hartu dute parte. 124 ikaslek guztira. Epaimahai Udaleko ordezkariak eta Gemma Monreal margolariak osatu dute. Hauek izan dira irabazleak: Elene Ansola Irazabal, Goiuri Marcos Etxeberria, Mauricio Justiniano Jiménez, Nahia Olivares Dominguez, Nora Arrizabalaga Rodríguez, Eneritz Rodríguez Arano, Lis Amaia Figuroa Ramirez, Maier Amutxastegi Yarza, Ilargi Galeano Vela, Uxue Gutierrez Celaya-Zugadi, Nahia Garate Estevez eta Eneko Arrizabalaga Loiola. Egutegia aurkezteko eta sariak banatzeko ekitaldia abenduaren 2an izango da, iluntzeko 19:00etan, Aita Agirre kulturguneko Areto Nagusian.

19:00etan hasiko da Amoranteren kontzertua

‘Oingoan bai’ egitasmoaren barruan, Amoranteren kontzertua izango da gaur Herriko Antzokian, baina koronabirusaren pandemiaren ondorioz ezarritako alarma egoera dela-eta, Kultura Sailak orduz aldatu behar izan du kontzertua: 19:00etan izango da, Herriko Antzokian. Gaur zortzi, Elanders eta Leok’k taldeen txanda izango da, eta azaroaren 19an Ander Mujikaren Testurak proiektuaren emanaldiaz gozatzeko aukera izango da.

Jardunaldi mikologikoak bertan behera utzi dituzte

Karakate mikologia elkarteak urtero egin izan ditu mikologia jardunaldiak udazkenean, Aranzadi zientzia elkartearekin elkarlanean, eta aurten ere urriko azken asteburuan egiteko asmoa zuten. Koronabirusaren pandemiak, hala behartuta, baina, jardunaldiak bertan behera lagatzea erabaki dute arduradunek, “pena handiz”. Gure inguruan batutako perretxi-koak jarri ohi zituzten erakusgai Kultur Etxeko sotoan.

Dantza ikastaroa bertan behera laga du Haritz Euskal Dantzari Taldeak

Herritarren osasuna eta segurtasuna bermatzeko asmoz, Haritz Euskal Dantzari Taldeak bertan behera laga du aurtengo dantza ikastaroa. Esan dutenez, “behar-beharrezko” ikusi dute erabaki hau hartzea, “guztion segurtasuna bermatzeko”. Egoerak hobera egiten badu eta agintariak hala baimentzen badute, 2021eko urtarrilaren 18an hasiko lirakeke dantza eskolak. Izena emanda dutenek ez dute berriz ordaindu beharrik izango eta plaza gordeko zaie. Urtarrilean segitzetik ez badago edo norbaitek ez badu klaseetan jarraitu nahi, dirua itzuliko diotela jakinarazi dute dantza taldeko arduradunek.

Eneko Etxaniz txapelkun eta Markel Goenaga txapelkunorde Elgoibarko Aurreku Txapelketan

Koronabirusagatik bi aldiz atzeratu ostean, azkenean joan den zapatuan jokatu zuten Elgoibarko Aurreku Txapelketa, eta arduradunek jakinarazi dutenez, emaitza onak eskuratu zituzten Elgoibarko dantzariak. Pandemiak baldintzatutako kanporaketa izan zen, izena emanda zeuden hainbat dantzari ez etortzea erabaki zutelako, besteak beste. Zapatuan, goizez, 2005-2006. urteetan jaiotakoak lehiatu ziren Herriko Antzokian. Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz, Markel Goenaga eta Aimar Almortza izan ziren Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ordezkariak eta primeran moldatu ziren: Eneko Etxanizek eskuratu zuen lehen postua eta Markel Goenagak bigarrena. Arratsaldean B eta A saileko dantzarien txanda izan zen: 2007-2008-2009. urteetan jaiotakoak eta 2010-2011 eta 2012. urteetan jaiotakoak, hurrenez hurren. Sail horietan Nerea Galindo, Naroa Urrutia eta Malen Galarraga izan ziren etxeko dantzariak. Bereziartua eskolako arduradunek jakitera eman dutenez, gustura gelditu ziren txapelketa antolatzeke eginiko lanarekin eta baita dantzariak eginiko lanarekin ere. Baliteke Elgoibarkoa izatea denbora apur batean jokatu den azken aurreku txapelketa, gainerako alorretan moduan, ziurgabetasuna baita nagusi dantza munduan ere, eta ez dakite Hondarribian, Lezon, Legazpin eta Errenterian jokatzekeak ziren hurrengo txapelketak egiteko moduan izango diren.



Zineklubeko emanaldiak 19:00etan hasiko dira

Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuen domekan, eta etxeratze aginduaren ordutegia 23:00etatik 06:00etara artekoa izango zela zehaztu zuen astelehenean Jaurlaritzak, besteak beste. Hori dela eta, kultur ekitaldien ordutegiak aurreratu egin behar izan dituzte eragileek, eta Ongarri zineklubak ere jakinarazi du azaroko emanaldiak 19:00etan hasiko direla. Azaroaren 12an *El drogas* dokumentala emango dute, eta hilaren 26an, *La candidata perfecta* filma.

Ane Gebara ipuin kontalariaren saioaz gozatu zuten Mendaron egunean

Liburutegiko sekretuak haurrentzako ipuin kontaketa saioa izan zuten joan zen astean Mendaron, Liburutegien Nazioarteko Egunaren harira. Ane Gebara ipuin kontalaria gonbidatu zuten eta gozatu zuten udaletxeko udalbatza aretora batu ziren ume eta gurasoek. 4 eta 8 urte bitarteko umeentzako saioa izan zen.



Luis Cerronek bigarren liburua kaleratu du

Encuentra el camino. Una historia de búsqueda y felicidad liburua kaleratu berri du Luis Cerron elgoibartarrak. Irakaslea eta psikopedagogoa da, bai eta aholkularia eta garapen eta hazte prozesuetan bidelaguna ere hainbatentzat. Zoriontasuna bilatzeari buruzko oinarriak jaso ditu bere bigarren liburuan. Pitxintxun eta Amazonen eskuratu daiteke.



LANA.....
Eskaerak

Langile euskalduna behar dugu hilean bi aste-buruz, goizetan, adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.
 ☎ 615 006 733

Gurekin bizitzeko etxeko langilea behar dugu, adinekoak zaintzeko. Euskalduna. Laguntza izango luke. ☎ 615 006 733

9 urte dituen ume bati gitarra klaseak emango dizkion pertsona bat behar da.
 ☎ 615 750 171 (whatsapp, mesedez)

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest, etxeko langile moduan.
 ☎ 643 977 786

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz.
 ☎ 660 511 781/943 742 330 (Elena)

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak ere egiten ditut.
 ☎ 602 123 942

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean zaintza lanak egiteko ere bai. ☎ 632 421 912

Edozein lan egiteko prest nago. Agiriari ditut.
 ☎ 631 895 039

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat. ☎ 643 278 344

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Baita erakuntzan edo basoko mutil lanetan jarduteko ere. Arduratsua naiz.
 ☎ 662 415 709

Adinekoak zaintzeko, zerbitzari moduan jarduteko edo beste edozein lan egiteko prest nago.
 ☎ 610 668 183

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Baita ospitalean dauden gaixoekin gaueetan egoteko ere. Esperientzia daukat.
 ☎ 641 359 024

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak ere egiten ditut eta baita ospitalean dauden gaixoekin egon ere. Berehala lanean hasteko prest.
 ☎ 602 407 338

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, eta baita etxeko lanak egiteko ere.
 ☎ 657 155 078

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Nahiago, etxeko langile moduan.
 ☎ 631 121 148

Neska euskalduna eta gaztea umeak zaintzeko prest. Goizez, arratsaldean zein egun osoan, orduka. Eskolako lanak egiten ere laguntzen diet umei. Esperientzia dut, haurtzaindegi batean lan egindakoa bainaiz eta gidabaimena ere badut.
 ☎ 688 697 204

Pertsona nagusiak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.
 ☎ 604 183 037 (Teresa)

Adinekoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.
 ☎ 617 571 210

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
 ☎ 649 044 223

Umeak zainduko nituzke, baita ikastetxetik jaso edo hara eramanez ere. Euskalduna naiz eta esperientzia daukat.
 ☎ 615 124 660

ETXEBIZITZAK.....

2 logelako etxebizitza alokagai, Deban. Azarotik ekaina erdialdera bitartean.
 ☎ 669 339 529

GARAJEAK.....

Garagea salgai Mendaron, Azpilgoeta auzoan. Handia da, argitsua, ur-sarrerarekin eta ate automatikoa. Kalera ematen du eta sarbide eroso du.
 ☎ 695 730 442

Garaje itxia alokatzen dut Lekuederren, 4. solairuan. ☎ 660 042 159 (arratsaldean deitu, Beatriz).

| | |
|--|--|
|  <p>administradores <small>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoaldea Berria - Administratzaileak Larreako Kontak</small></p> <p>ROSA Ma PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p> | <p>Gure etxebizitzan merkataritza-lokal bat dago, atarira eta garajeetara sartzeko aukerarik ez duena. Jakin nahi nuke komertzio horren jabea aseguru komunitarioa ordaintzera behartuta dagoen, berak bere aseguru pribatua izanik.</p> <p>Erantzukizun zibileko aseguruak estaltzen du elementu, zerbitzu eta instalazio komuneren funtzionamendu okerraren edo kalteen ondorioz hirugarren bati eragindakoa kalteak ordaintzeko betebeharra. Ildo horretan, aseguruaren prima higiezinaren erabilera egokirako beharrezko gastutzat jotzen da. Gastu hori nahitaezkoa dela ezartzen duen lege-xedapenik egon ala ez, gastu hori beharrezkoa da kasu guztietan. Beraz, komunitateko kide guztiek parte hartu behar dute gastu horretan, salbuespenik gabe, merkataritza-lokalak barne, legean gastuak banatzeko ezarritako eta jasotako araubide orokorarekin bat etorriz.</p> <p>Gomendioa. Kontratutako poliza komunitarioaren helburua elementu komuneren ondoriozko erantzukizun zibila estaltzea da, ez jabetza pribatiboa, partikular gisa. Horretarako, etxebizitza edo lokal bakoitzak bere aseguru izango rdu kontratatuta. Jabetza partikular bakoitzak bere aseguru izateak ez du esan nahi aseguru orokor bat kontratatu behar ez denik. Izan ere, komunitate orokorrari eragiten dion aseguru hori kontratatuz, Komunitateko azpiegiturei eragiten dieten ezbeharrei estaldura eman ahal zaie.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p> |
|--|--|



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Jada 9 urte! Gizon-
txo egiten ari zara.
Zorionak, **Manex**,
igan-dean zure urtebete-
tzea izan zelako.
Muxu handi bat,
etxeko guztion par-
tez.

Zorionak, **Ibon**,
txapeldun, 9. urte-
betzean. Familia
osoaren partez.

Zorionak, **Maule**,
politt hori! 9 patxo
haundi!

Zorionak **Paul!**
Bihar 3 urte potolo
betetzen dituzu-
lako. Etxekoen eta
lagunen partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€




PEDRO MIGUEL URRUZUNO,
S.KOOP

OHIKO BATZAR NAGUSIA
Deialdia

Eguna : 2020ko azaroaren 5a (osteguna)
Ordua: 18:00etan lehen deialdian eta
18:30ean bigarrenan

TELEMATIKOKI GAUZATUKO DA

TEKA IBC 63015 BK MSS INDUKZIOA



- 3 eremu
- Power Plus funtzioa
- Stop & Go funtzioa
- Egoste-denboraren programatzaillea, 99 min arte, abisatzaile akustikoarekin

339 €

TEKA HHB 435 LABEA

- Funtzio anitzekoa
- 72 litro
- 3 egoste-funtzio
- Kristal bikoitzeko atea
- A mota energetikoa
- Hatz marka kontrako altzairu herdoilgaitza

215 €



Jarri ezazu zure publizitatea BARRENeke astekarian
edo www.barren.eus webgunean

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

943 743 704
688 769 657



BARREN

Alta Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk.
20870 ELGOIBAR



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agurtu arte.

30 BARIKUA

19:00 Kontzertua: 'Oingoan bai!': Amorrante. Herriko Antzokian.

31 ZAPATUA

9:00 Urriko azken zapatuko feria. Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai, 14:00ak arte.

6 BARIKUA

19:00 Kontzertua: 'Oingoan bai!': Elea eta Leok'k. Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Akelarre'

31 zapatua: 19:00
1 domeka: 19:00
2 astelehena: 19:00



'100% wolf: pequeño gran lobo'

1 domeka: 16:30



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

| 30 BARIKUA | 31 ZAPATUA | 1 DOMEKA | 2 ASTELEHENA | 3 MARTITZENA | 4 EGUAZTENA | 5 EGUENA | 6 BARIKUA |
|---------------------------------|-----------------------------------|-----------------------------------|-----------------------------|-----------------------------|----------------------------|-------------------------------|---------------------------------|
| Egunez *Ibañez | Egunez Garitaonandia | Egunez Garitaonandia | Egunez Arriola | Egunez *Fernandez | Egunez Yudego | Egunez *Oruesagasti | Egunez Barrenetxea |
| Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Arriola | Iluntzean Arriola | Iluntzean Yudego | Iluntzean Yudego | Iluntzean Barrenetxea |

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagaritza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984

BARREN sare sozialetan



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria





II. URTEURRENA

Isabel Azpeleta Iturricastillo

2018ko azaroaren 2an hil zen, 49 urte zituela.

***Tristura handia dugun arren,
zurekin bizi izandako uneak
gogoratzean beti egingo dugu irribarre.***



"La Family"



Betirako gure bihotzetan

I. URTEURRENA

Maria Trinidad Larrañaga Arregi

2019ko azaroaren 2an hil zen, 67 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, azaroaren 8an, goizeko 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Etxekoak



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



hortz klinikak · clínicas dentales

943 36 63 77

Lasarte-Elgoibar-Tolosa

***IRRIBAREA BERRITU,
EGUNEAN KAFE BAT
BAINO GUTXIAGO
ORDAINDUTA***

***Etor zaitetz eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe. Lehen kontsulta
eta diagnostikoa **doan**.***

***Zerbitzuak:
Odontologia Integrala: tratamendu guztiak
Larrialdietako zerbitzua
Inplanteak
Hortz estetika
Ortodontzia***

...

ESKATU ZURE TXANDA: 943 366 377

***Zure segurtasuna bermatzeko
gure protokoloak indartu ditugu.***